



INFORMACIÓN  
BBK SAIOA  
GORABIDE  
INFORMAZIOA

**Ibilgailua eroste-ko  
abantailak**

**Ventajas para  
comprar vehículo**

pg. 6 or.

**ATHLETIC**

**TXAPELDUNI**

**Honela bizi izan  
genuen Gabarra**

**Así vivimos  
la Gabarra**

pg. 4-5 or.




**Japoniatik  
bisitatu gaituzte**

**Nos visitan  
desde Japón**

pg. 7 or.

## Análisis de situación de cara al futuro

# Etorkizunari begira egoeraren azterketa



**Asamblea de Socias y Socios:  
20 de mayo, a las 18:00,  
en la CÁMARA DE COMERCIO  
de Bilbao (orden del día, en el interior)**

**Bazkideen Batzarra: maiatzak 20,  
18:00etan, Bilboko MERKATARITZA  
GANBERAn (eguneko gai zerrenda, barnean)**

## Análisis de situación de cara al futuro

Durante nuestro proceso de reflexión estratégica, detectamos datos que anticipan cambios para los apoyos destinados a las personas con discapacidad intelectual

Según los datos recogidos en el Plan para la Participación y Calidad de Vida de las Personas con Discapacidad (Diputación Foral de Bizkaia), el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV (Gobierno Vasco) y nuestro Informe Emerge Plus 2023, en Bizkaia, están registradas 5.584 personas con discapacidad intelectual. El 55,48%, evaluada como grave o muy grave; el 15,87%, moderada; y el 28,65%, leve o muy leve. Respecto al género, el 43% del total son mujeres. Y el 60% de ellas tiene una discapacidad calificada como grave o muy grave.

### Servicios sociales

Sólo el 18% de las personas con discapacidad intelectual tiene un empleo, por lo que mayoritariamente es un colectivo usuario de servicios sociales. El 40% recibe apoyos especializados, principalmente en centros de día o residenciales. Y el 16% perciben prestaciones económicas para cuidados en el entorno familiar.

### Población mayor

La pirámide de edad está invertida, con un 64% de las personas con discapacidad intelectual mayores de 44 años. Esto anticipa una disminución paulatina de la población con discapacidad intelectual que, en 2030, será decreciente y muy envejecida.

### Realidad en Gorabide

Por nuestra parte, contamos con casi 5.000 personas usuarias, lo que representa el 89% del censo de la Diputación Foral de Bizkaia. De ellas, 475 viven en nuestra red residencial y 248 utilizan alguno de nuestros centros de día. Y más de 160 se encuentran en lista de espera; en su mayoría (el 85%) para una plaza para centros residenciales y viviendas.

### Dificultades añadidas

El 22% de las personas con discapacidad intelectual apoyadas por Gorabide tienen, además, diversos diagnósticos de enfermedad mental, adicciones y otras conductas críticas.

### Gestión de servicios

La relevancia de nuestra asociación en la gestión de servicios sociales en Bizkaia se traduce en un 44% de la atención diurna y un 40% de las plazas residenciales para personas con discapacidad intelectual.

### Necesidades emergentes

Fruto del análisis de esos datos, y de las demandas y aportaciones recogidas en nuestro Informe Emerge Plus 2023, se pueden determinar una serie



de necesidades emergentes para los próximos años. Principalmente, relacionadas con cinco ámbitos: el acceso a servicios de responsabilidad pública, la coordinación entre la administración y las entidades, creación de nuevos servicios, mejora y ampliación de los existentes, y apoyos dirigidos a las familias.

### Anticiparnos a los cambios

Toda esta información, tanto de la demografía de nuestras personas usuarias como de los apoyos que van a necesitar, nos servirá para anticiparnos a los cambios que se prevén para el futuro.

## Etorkizunari begira egoeraren azterketa

Gure hausnarketa estrategikoa egiteko prozesuan, adimen desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzetan aldaketak aurreikusten dituzten datuak antzeman ditugu

Adimen desgaitasuna duten pertsonentzat aldaketak gerta daitezke datozen urteotan. Gero eta adintsuagoak dira eta erdiek laguntza ugari behar dituzte. Gehienek zerbitzu publikoak erabiltzen dituzte, edo diru publikoa jasotzen dute, eta itxaron-zerrenda oso luzea da. Informazio honekin, geure burua datozen aldaketetarako prestatu ahal izango dugu.

### Gizarte-zerbitzuak

Adimen desgaitasuna duten pertsonen %18k bakarrik dute lana; hortaz, gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituen kolektiboa da, gehienbat. %40k laguntza espezializatuak jasotzen dituzte, batez ere eguneko zentroetan edo egoitzetan. Eta %16k familia-inguruko zaintzarako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzte.

### Adineko biztanleria

Adin-piramidea alderantzikatuta dago, adimen desgaitasuna duten pertsonen %64 44 urtetik gorakoa izanik. Hori dela eta, adimen desgaitasuna duten biztanleen kopurua txikiagotuz joango dela aurreikus daiteke, eta 2030ean gero eta murriztagoa eta oso zahartua izango dela.

### Errealitatea Gorabiden

Gurean, ia 5.000 erabiltzaile ditugu, alegia, Bizkaiko Foru Aldundiaren erroldaren %89. Pertsona horietatik 475 gure egoitza-sarean bizi dira, eta

248k gure eguneko zentrotan bat erabiltzen dute. Eta 160 baino gehiago itxaron-zerrendan daude, gehienak (%85) egoitza-zentroetarako eta etxebizitzetarako plaza baten zain.

### Zailtasun erantsiak

Adimen desgaitasuna izanik Gorabideren laguntza jasotzen duten pertsonen %22k gaixotasun mentalen, adikzioen eta bestelako jokabide larrien diagnostikoak dituzte, gainera.

### Zerbitzuen kudeaketa

Gure elkarteak Bizkaiko gizarte-zerbitzuen kudeaketan duen garrantziaren erakusle, eguneko arretaren %44 eta adimen desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-plazen %40 kudeatzen dituela.

### Sortzen ari diren beharrak

Datu horien ondorioz, eta gure Emerge Plus 2023 Txostenean jasotako eskaerak eta ekarpenak aintzat hartuta, datozen urteotarako sortuko diren hainbat premia zehatz daitezke. Nagusiki, bost alorrekin lotuak: erantzukizun publikoko zerbitzuetarako sarbidea, administrazioaren eta erakundeen arteko koordinazioa, zerbitzu berrien sorkuntza, egungoen hobekuntza eta hedapena, eta familientzako laguntzak.

### Aldaketei aurrea hartzea

Informazio honek guztiak, gure erabiltzaileen demografiari buruzkoa eta beharko dituzten laguntzen gainekoa, etorkizunerako aurreikusten diren aldaketei aurrea hartzeko balioko digu.

Los próximos años, puede haber cambios para las personas con discapacidad intelectual. Cada vez son más mayores y la mitad necesita muchos apoyos. La mayoría usa servicios o recibe dinero público, y hay mucha lista de espera. Con esta información, vamos a poder prepararnos para los cambios que haya.



Familiak Barakaldon Familias en Barakaldo



Aisia eta Astialdia Ocio y Tiempo Libre



Errota Eguneko Zentroa Centro de Día Errota



Ibarreta-Zuloko Egoitza Residencia Ibarreta-Zuloko




Eretza Eguneko Zentroa Centro de Día Eretza



Familia Barakaldon Familia en Barakaldo



Mungia Eguneko Zentroa Centro de Día de Mungia



Erabiltzaileak Barakaldon Personas usuarias en Barakaldo



Ondarroa Egoitza Residencia Ondarroa



Aisia eta Astialdia Ocio y Tiempo Libre



Ondarroa Egoitza Residencia Ondarroa



Muskiz Eguneko Zentroa Centro de Día de Muskiz



Artzentales Egoitza Residencia Artzentales



Foru Jauregia Palacio Foral

## Horrela bizi izan genuen Gabarra

Bai ekitaldiaren egunean bai bezperan, gure erabiltzaileek modu askotan bizi izan zuten Gabarra. Adibidez, Barakaldoko gure familia batzuek eta gure Ibarreta-Zuloko Egoitzan bizi diren zenbait lagunek Udalak gaitutako gune batez gozatu zuten. Eretza EAZen, bertako leihateetatik ikuspegi ezin hobea izan zuten. Errotan, beren gabarra propioa sortu zuten. Eguneko beste zentro batzuek eta

Aisialdiko eta Denbora Libreko taldeek zuri-gorritz jantzi zituzten beren jarduerak. Ondarroa Egoitzan, fatxada apaindu, ETBren emanaldia ikusi eta, postre gisa, gabarra bat sortu zuten. Artzentalesen, txangoa antolatu zuten Gabarra Erandion ikusteko. Eta bi erabiltzailek txapeldunei Foru Jauregian egin zitzaizen harrera-ekitaldian parte hartu zuten, Aldundiak gonbidatutak.

## Así vivimos la Gabarra

Tanto el día del evento como la víspera, nuestras personas usuarias vivieron la Gabarra de muchas formas. Por ejemplo, varias de nuestras familias de Barakaldo y personas que viven en nuestra Residencia Ibarreta-Zuloko disfrutaron de una zona habilitada por el Ayuntamiento. En el CAD Eretza, tuvieron unas vistas privilegiadas desde sus ventanales. En Errota, crearon su propia gabarra.

Otros centros de día y grupos de Ocio y Tiempo Libre tuvieron de rojiblanco sus actividades. En la Residencia Ondarroa, decoraron la fachada, proyectaron la emisión de ETB e hicieron una gabarra de postre. En Artzentales, organizaron una salida para verla en Erandio. Y dos personas usuarias participaron en la recepción a los campeones en el Palacio Foral, invitadas por la Diputación.

**información **bbk** SAIOA GORABIDE informazioa**

## Ventajas fiscales para comprar un vehículo

**Exención del Impuesto de Matriculación:** Destinada a la primera matriculación de vehículos a nombre de personas con discapacidad igual o superior al 33%. Para volver a beneficiarse de esta medida, tienen que transcurrir, al menos, cuatro años, excepto en caso de siniestro total del vehículo. Es necesario acreditar, mediante certificado de la asociación a la que pertenezca la persona solicitante, que el vehículo es el transporte habitual de la persona con discapacidad.

**IVA reducido para comprar y adaptar vehículos:** Se aplica el 4% de IVA en la compra de vehículos nuevos a quienes, además de los requisitos del punto anterior, tengan valorado en su certificado de discapacidad el apartado de movilidad con las letras A, B, C o con 7 puntos o más (para valoraciones de discapacidad posteriores al nuevo baremo del Real Decreto 888/2022, son 25 puntos en movilidad) o que tengan la tarjeta de aparcamiento para personas con discapacidad, o tengan ceguera o baja visión acreditada por la Once. Para poder solicitar este IVA reducido, la persona con discapacidad no puede tener otro vehículo de ningún tipo a su nombre. Y si vende el vehículo antes de cuatro años, tiene que pagar el porcentaje de IVA que no abonó en el momento de la compra.

**Exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica:** Se aplica a los vehículos destinados al uso exclusivo de personas con discapacidad y matriculados a su nombre, que tengan menos de 14 caballos fiscales de potencia. Para vehículos adaptados, no se tiene en cuenta la potencia fiscal. Pueden acceder a esta exención personas que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 65%, o quienes tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33% y que además reúnan los requisitos de valoración de movilidad mencionados en el apartado anterior. Debe solicitarse en el ayuntamiento correspondiente, que tiene la potestad de incluir mejoras de estos beneficios en sus ordenanzas, y no se puede aplicar a más de un vehículo a la vez.

## Ibilgailua erosteko zerga-abantailak

**Matrikulazio-zergaren salbuespena:** %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen izenean dauden ibilgailuak lehen aldiz matrikulatzeko. Neurri honetaz berriz baliatu ahal izateko, lau urte igaro behar dira, gutxienez, salbu eta ibilgailuaren erabateko hondamena gertatzen bada. Ibilgailua desgaitasuna duen pertsonaren ohiko garraioa dela egiaztatu behar da, pertsona kide den elkartearen ziurtagiri bidez.

**BEZ murriztua ibilgailuak erosteko eta egokitzeko:** Ibilgailu berrien erosketan BEZaren %4 aplikatuko zaie, aurreko puntuko baldintzak betetzeaz gain, beren desgaitasun-ziurtagiriko mugikortasun-atala A, B, C letrekin edo 7 punturekin edo gehiagorekin baloratu dutenei (888/2022 Errege Dekretuko baremo berraren osteko desgaitasun-balorazioetarako, 25 puntu dira mugikortasunean) edo desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-txartela dutenei edo Oncek egiaztatutako itsutasuna edo ikusmen urria dutenei. BEZ murriztu hau eskatzeko, desgaitasuna duen pertsonak ezin du bere izenean beste ibilgailurik eduki. Eta ibilgailua lau urte igaro baino lehen saltzen badu, erosi zuenean ordaindu beharreko BEZaren ehuneko ordaindu beharko du.

**Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena:** Besgaitasuna duten pertsonak bakarrik erabiltzeko ibilgailuei aplikatzen zaie, beren izenean matrikulatuta egonez eta 14 zaldi fiskaletik beherako potentzia edukiz gero. Ibilgailu egokitu etarako, potentzia fiskala ez da kontuan hartzen. Salbuespen hau aitortutako desgaitasun-gradua %65ekoa edo handiagoa duten pertsonen bali dezakete, edo %33koa edo handiagoa dutenek eta, gainera, aurreko paragrafoan aipatu mugikortasun-balorazioari dagokionez baldintza berak betetzen dituztenek. Eskaera dagokion udalean egin behar da, erakunde horrek bai-

tu onura hauen hobekuntzak bere ordenantzetan jasotzeko eskumena, eta ezin zaio ibilgailu bati baino gehiagori aldi berean aplikatu.

**BBK SAIOA GORABIDE**  
**Tel. 94 453 90 86**  
[administracionsaioa@gorabide.com](mailto:administracionsaioa@gorabide.com)



## Japoniako ikertzaile batek gure ereduan interesatzen du

Chiaki Shiraik, Japoniako Shizuokako Unibertsitateko Soziologiako irakasle eta ikertzaileak bisitatu gaitu, gure eredia eta laguntza-programak, eta adimen desgaitasuna duten pertsonentzat Bizkaian dauden baliabideak ezagutzeko. Izan ere, informazioa jaso eta bere herrialdean desgaitasuna duten pertsonen bizi duten egoera hobetzeko aplikatzeko asmoa du, "ia ikusezinak" baitira.

Gure Orientazio eta Laguntza Teknikoko zuzendaria eta BBK SAIOA GORABIDE taldeko gizarte-langileetako bat bildu ziren harekin, Ola BBK zentroan. Horrez gain, hainbat erabiltzaileekin elkarri eragin, eta aldi baterako egonaldietarako egoitza ezagutu zuen, bertako koordinatzaileetako baten eskutik. Bisita eta gero "harrituta" agertu zen, "zuen eredia oso osatua delako, erabiltzaileen ikuspegitik".

## Una investigadora de Japón se interesa por nuestro modelo

Chiaki Shirai, profesora de Sociología e investigadora de la Universidad Shizuoka de Japón, nos ha visitado para conocer nuestro modelo y nuestros programas de apoyo, y los recursos que hay en Bizkaia para las personas con discapacidad intelectual. Su objetivo era recabar información para poder aplicarla en la mejora de la situación que viven en su país las personas con discapacidad, que son "prácticamente invisibles".

La atendieron en el Centro Ola BBK nuestra directora de Orientación y Apoyo Técnico y una de las trabajadoras sociales del equipo BBK SAIOA GORABIDE. Además, interactuó con varias personas usuarias y conoció la residencia de estancias temporales, guiada por uno de sus coordinadores. Tras la visita, se mostró "impresionada por lo completo que es vuestro modelo, según la perspectiva de las personas usuarias".

## LABURRAK BREVES

### Bilakaerari eta etorkizunari buruzko hitzaldia

Zaragozako Atades elkarteak adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dugun elkarteon bilakaerari eta etorkizuneko erronkei buruzko hitzaldi bat ematera gonbidatu gaitu. Halako ekintzen bidez, 60 urtean baino gehiagoan pilatu dugun ezagutza eta ia 5.000 familiako gizarte-oinarria izateak ematen digun ikuspegia partekatzen ditugu.

### Ponencia sobre evolución y futuro

La asociación Atades de Zaragoza nos ha invitado a ofrecer una ponencia sobre la evolución y los retos de futuro de las asociaciones que trabajamos por contribuir a mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual. A través de estas acciones, compartimos el conocimiento que hemos acumulado durante más de 60 años y la perspectiva que nos proporciona contar con una base social de casi 5.000 familias.

### Harreman-datuak

Zure intereseko komunikazioak jaso nahi badituzu, bidali zure helbide elektronikoa eta mugikorzenbakia gure BBK SAIOA GORABIDE taldeari, [administracionsaioa@gorabide.com](mailto:administracionsaioa@gorabide.com) helbidera, edo deiiezaguzu 94 453 90 86 zenbakira.

### Datos de contacto

Si quieres recibir comunicaciones de tu interés, manda tu mail y número de móvil a nuestro equipo BBK SAIOA GORABIDE, a [administracionsaioa@gorabide.com](mailto:administracionsaioa@gorabide.com), o llama al teléfono 94 453 90 86.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkarte da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuak (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).



**Bilboko gure Dolaretxe Egoitzak bere 20. urteurrena bete eta festa bat antolatu du ospatzeko, uneraren batean familia horretako kide izan diren pertsona guztiak gonbidatuta.**

**Nuestra Residencia Dolaretxe de Bilbao ha celebrado su 20 aniversario, con una fiesta a la que han invitado a todas las personas que han formado parte de esa familia en algún momento.**

## PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Maiatzan, **konektatutako teknologien erabilera seguru eta osasungarriari** buruzko tailerra eskainiko diegu familiei (hilaren 13an). Berriz, **interneteko segurtasunari** buruzkoa adimen desgaitasuna duten pertsonen (14an). **Kafeak Kide Artean** elkarrizketa laguntzeko taldeekin jarraituko dugu, adimen desgaitasuna edo mugako adimena duten pertsonen senideentzat. Baita hamabostean behingo **Hariez Harago Ehuntzen** tailerarekin ere. Gainera, **Lantegi Batuak-eko Sestao Barri tailerrera bisita** antolatu dugu (27an).

Hori guztia, "laCaixa" Fundazioaren laguntzarekin.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**  
dianacabezas@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

### AUTOGESTIO PROGRAMA

- **Gazteak:** Asteazkena 8, Pact by BBK-ko saioa.
- **Helduak:** Asteazkena 15, 18:00etan, Abandoko Udaltegian. Barrainkua 5 (Bilbo).

## PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

En mayo, ofreceremos un taller para familias, acerca del **uso seguro y saludable de las tecnologías conectadas** (día 13). Y otro, dirigido a personas con discapacidad intelectual, sobre **seguridad en internet** (día 14). Seguiremos con los grupos de ayuda mutua **Cafés en compañía**, para familiares de personas con discapacidad intelectual o con inteligencia límite. Y también con el taller quincenal **Tejiendo más allá de los hilos**. Además, hemos organizado una **visita al taller Sestao Barri de Lantegi Batuak** (día 27). Todo ello, con apoyo de Fundación "laCaixa".

**Más información e inscripciones:**  
dianacabezas@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

### PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN

- **Jóvenes:** Miércoles 8, sesión del Pact by BBK.
- **Personas adultas:** Miércoles 15, a las 18:00, en el CMD Abando. c/ Barrainkua nº 5 (Bilbao).



## OHIKO BATZAR NAGUSIETARAKO DEIALDIA

Gorabideko Zuzendaritza Batzordeak **BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO** deia egiten du. Batzarra **2024ko maiatzaren 20an, 18:00etan** izango da **Bilboko Merkataritza Ganberako hirugarren solairuan** kokatuta dagoen **Kontsulatu Aretoan** (Rekalde Zumarkalea 50, Poza Lizentziatuaren kalearen izkinan), bigarren deialdian. Lehenengo deia ordubete lehenagorako egiten da honen bidez, baina seguru asko batzarra ezin izango da lehenengo deialdian egin.

## GAI ZERRENDA

- 1. Aurreko batzarrean onartutako akta irakurtzea, informatzeko.**
- 2. Presidenteak berriak ematea.**
  - 2.1. Elkartearen 2023eko ekintza plana eta zuzendaritza batzordearen kudeaketa aztertzea eta, hala badagokio, onartzea..
  - 2.2. 2023eko finantza egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
- 3. 2024 urterako ekintza plana onartzea.**
  - 3.1. Presidentearen azalpena.
  - 3.2. 2024rako aurrekontua
- 4. 2025 urterako kuotak eguneratzea.**
- 5. Honako hauen jardunbidearen eta kudeaketaren informazioa ematea:**
  - 5.1. Lantegi Batuak Fundazioa.
  - 5.2. Futubide Fundazioa.
- 6. Zuzendaritza-batzordea berritzea.**
- 7. Eskaerak eta galderak.**

---

Edukiera mugatua dela eta, bilerara bertaratu ahal izateko **beharrezkoa izango da izena ematea**, **maiatzaren 19ra arte**, [gorabide.com/batzarra2023](http://gorabide.com/batzarra2023) web-orrian edo 662 311 743 telefonora deituz (astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era), .

**Pertsona bat bakarrik bertaratuko da** bazkide-zenbaki bakoitzeko.

Batzarrean aurkeztuko diren dokumentuak aurretiaz irakurri nahi dituzten bazkideek eskuragarri dituzte gure elkartearen bulegoetan, Poza Lizentziatuaren kalea, 14-2. pisua, Bilbon, 2024ko maiatzaren 6tik aurrera. Kontsulta egiteko, aldeztu aurretik hitzordua eskatu behar da 662 311 743 telefonora deituz.



## CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

La Junta Directiva de Gorabide convoca **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE SOCIAS Y SOCIOS**, el **20 de mayo de 2024**, a las **18:00 horas**, en el **Salón Consulado** ubicado en la **tercera planta** de la **Cámara de Comercio de Bilbao** (Alameda Rekalde nº 50, esquina con la calle Licenciado Poza), en segunda convocatoria, al ser previsible que no pueda celebrarse en la primera, que también queda convocada por este anuncio una hora antes.

## ORDEN DEL DÍA

- 1. Lectura, a efectos informativos, del acta aprobada en la asamblea anterior.**
- 2. Informe de la presidenta.**
  - 2.1. Análisis y aprobación, en su caso, del plan de actuación de la asociación y de la gestión de la junta directiva en el año 2023.
  - 2.2. Análisis y aprobación, en su caso, del estado financiero del año 2023.
- 3. Aprobación del plan de actuación para el año 2024.**
  - 3.1. Exposición por parte de la presidenta.
  - 3.2. Presupuesto para el año 2024.
- 4. Actualización de las cuotas para el año 2025.**
- 5. Resumen, a título informativo, de actuación y gestión de:**
  - 5.1. Lantegi Batuak Fundazioa.
  - 5.2. Futubide Fundazioa.
- 6. Renovación de la junta directiva.**
- 7. Ruegos y preguntas.**

---

Debido a la limitación de aforo, para poder asistir a la asamblea **es necesario inscribirse, hasta el 19 de mayo**, en [gorabide.com/asamblea2024](http://gorabide.com/asamblea2024) o llamando al teléfono 662 311 743 (de lunes a viernes, de 9:30 a 13:30).

**Sólo se permitirá el acceso a una persona** por cada número de socia o socio.

La documentación que se presentará en la asamblea está a disposición de las socias y los socios que deseen examinarla, en las oficinas centrales de nuestra asociación, c/ Licenciado Poza nº 14, 2º de Bilbao, a partir del 6 de mayo de 2024. Es necesario solicitar cita previa para su consulta, llamando al teléfono 662 311 743.